



2019/11/21EKO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2019/11/21
Hasiera ordua: 10:00
Amaiera ordua: 10:10

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Maria Cristina Etxenausia Irure

Iban Herrarte Arana

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa

Ez bertaratuak:

Oihana Ameskoa Perez

Santiago Balantzategi Ugarte

Ana Maria Martiarena Arregi

Gorka Astondoa Altuna

Pedro Elosegui González de Gamarra

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzailea, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

1. ONARTZEA 2019 URTEKO LAN ESKAINTZA PUBLIKOA. 3
2. ONARTZEA KL, KOOP TXIKIA ENPRESARI FIDANTZA ITZULTZEA. 3



1. ONARTZEA 2019 URTEKO LAN ESKAINTZA PUBLIKOA.

Alkateak gogorarazten du, udalean Euskara Teknikari plaza bat dagoela, lan-kontratupeko langileei erreserbatua, jardunaldi erdikoa eta 2001/09/17az geroztik etenik gabe pertsona berberak betetzen duena. Kontuan hartu beharra dago, baita ere, 2003/03/31z geroztik udal aurrekontuan jasotzen dela urtero eta, aldi berean, udaleko lanpostu zerrenda eta plantila organikoan.

Bestalde, 2019/04/16an Udalbatzak egindako ezohiko bilkuran onartutako lan zerrendaren aldaketan jasotzen da, administrari laguntzaile lanpostu bat iraungitzea eta, horri lotuta, administrari lanpostu bat sortzen da, hain zuzen ere, barne promozio bidez beteko dena.

Udal Idazkariak egindako txostena aldekoa dela adierazi ondoren, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion erabaki proposamena:

“**Lehena.**- Onartzea, 2019 urteko Lan Eskaintza Publikoa, jarraian adierazten diren ezaugarriekin:

Karrerako funtzionarioak:

Lanpostua: administraria
Kopurua: 1
Eskala: Administrazio orokorra
Taldea: C1
Betetzeko modua: barne promozioa

Lan-kontratupeko langileak:

Lanpostua: euskara eta hezkuntza teknikaria
Kopurua: 1
Taldea: A2
Azpieskala: Administraziozkoa
Betetzeko modua: txanda librea (aldi baterako lanpostuen kontsolidazioa)

Bigarrena.- Kontratazio Mahaiaren deialdia egitea, urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratua onartzen duenak, 36 eta 37.1 artikuluetan agindutakoa betetzeko.

Hirugarrena.- Publikatzea 2019 urteko Lan Eskaintza Publikoa, Aramaioko Udalaren egoitza elektronikoan, ALHAOn eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, interesdunek egoki ikusten duten alegazioak aurkeztu ahal ditzaten.”

Alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

2. ONARTZEA KL, KOOP TXIKIA ENPRESARI FIDANTZA ITZULTZEA.

Alkateak hitza hartu eta gogorarazten du, 2014ko abenduaren 10ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzak onartu zuela, ARAMAIOKO EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA KUDEATZEKO ZERBITZUA kontratatzeke espediente (2014KIRE0004). Aldi berean onartu ziren, Administrazio Baldintza Zehatzen Orria, Preskripzio edo Espezifikazio Teknikoen Orria eta Gastua. Beranduago, KL, KOOP TXIKIAren aldeko esleipena egin zen, hain zuzen ere, 2015eko ekainaren 23an hartutako erabakiaren bidez. Jardunbide horren barruan eta, administrazio baldintza zehatzen orrian ezarritakoaren arabera, esleipendunak behin betiko bermea jarri zuen, 5.032,40.-€koa, bere egitekoak beteko dituela bermatzeko.

Lizitazioan aurreikusitako bi luzapenak izan zituen aipatutako kontratuak, zehaztuz, Udalbatzak 2017ko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran eta 2018ko ekainaren 28an egindakoan ebatzitakoak.

Gaur egun, berriz, KL, KOOP TXIKIA da indarrean dagoen zerbitzu kontratuaren esleipenduna (2019ko apirilaren 16an egindako udal plenoan ebatzi zen, besteen artean, onartzea ARAMAIOKO EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA KUDEATZEKO ZERBITZUA kontratatzeke espediente berria, 2019KIRE0001).

Aurreko kontratua amaitua dagenez eta berriari dagokion bermea jarrita dagoenez, KL, KOOP TXIKIAk 5.032,40.-€ko bermearen itzulketa eskatu zuen.



Esp. kodea.: 2019APAK0015

Gaia: 2019/11/21 UDAL PLENOAREN EZOHICO BILKURAREN AKTA

Horrenbestez, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion erabaki proposamena:

“**Lehena.-** Onartzea KL, KOOP TXIKIAk egindako eskaera eta itzultzea 2014KIRE0004 espedientearen barruan jarritako 5.032,40.-€ko bermea.

Bigarrena.- Interesdunari jakinaraztea.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.